



OSOKO BILKURA

SESION PLENARIA

TOKIA / LUGAR: Udaletxea
EGUNA / FECHA: 25/03/2015
HASIERA / INICIO: 19:00
AMAIERA/FINAL: 19:15

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/ALCALDESA
Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (BILDU)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)
Jone Miren Arrasate Urquiaga (Bildu)
Miren Nekane Renteria Echevarria (Bildu)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (Bildu)
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andrés Zearreta Otazua (EAJ-PNV)

IDAZKARI NAGUSIA/ SECRETARIO GENERAL
V́ctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udalaren Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate Andreak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahiko denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden de la Sra. alcaldesa dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen 2015ko otsailaren 25ko akta.

1.º.- Acta de las sesiones anteriores.-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 25 de febrero de 2015.

2.- Mugaketa Muruetarekin.-

Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Presidentetza Sailari igortzea “Lurralde-mugen aldaketa Etxetxubarrri eta Matorduene arteko eremuan” akordioari (2007ko irailaren 27ko osoko bilkurarena) dagokion txostenaren dokumentazioa, aipatu Sailaren eskakizunei egokituta, hau da, kontuan hartuta aldaketa egiteko aintzat hartu beharreko hasierako mugak Gernika-Lumoko udalerriri dagokionez Muruetako Elizbarrutiaren desanexioari dagozkionak direla, Bizkaiko Batzar Nagusien 1987ko martxoaren 13ko akordio bidez.

2.º.- Deslinde con Murueta.-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó remitir al Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia la documentación del expediente correspondiente a la “Alteración de los límites territoriales entre los términos municipales de Busturia y Murueta en la zona comprendida entre Etxetxubarrri y Matorduene” (acuerdo plenario de 27 de septiembre de 2007), adaptándose a las exigencias del citado Departamento, es decir, considerando que los límites iniciales que han de ser tenidos en cuenta para la modificación son los correspondientes a los de la desanexión de la Anteiglesia de Murueta del municipio de Gernika-Lumo, mediante acuerdo de las Junta Generales de Bizkaia de 13 de marzo de 1987.

3.- Zerbitzu publikoak ematearen eta jarduera ekonomikoak egitearen ondoriozko tasak arautzen dituen Udal Zerga Ordenantzaren aldaketa.-

Kontuan hartuta aurretik egindako aldaketak, zabor-bilketa zerbitzuaren tasari % 5eko hobaria ezartzeko, aurreikusten zuela onura hori bakarrik jasoko zutela hondakin organikoaren bilketa selektiborako planean izena ematen zuten etxeek, bestelako establezimenduak bazter geratuta, eta kontuan hartuta hobari hori orokorrean aplikatu behar dela, Toki Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikularekin bat eginda, Osoko Bilkurak ondoko erabakiak hartu zituen:

1.- Behin-behineko izaeraz onartu zerbitzu publikoak ematearen eta jarduera ekonomikoak egitearen ondoriozko

3.º.- Modificación de la Ordenanza Municipal Fiscal reguladora de las tasas por la prestación de los servicios públicos y realización de actividades económicas.-

Teniendo en cuenta que la modificación realizada anteriormente para bonificar en un importe del 5% la tasa del servicio de recogida de basuras, sólo preveía este beneficio para aquellos domicilios que se inscribiesen en el plan de recogida selectiva del residuo orgánico, quedando excluidos otro tipo de establecimientos, y considerando que esa bonificación debe aplicarse de forma general, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 16 de la Norma Foral 9/2005, reguladora de las Haciendas Locales, y 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:

1.- Aprobar provisionalmente la modificación de la Ordenanza Municipal Fiscal reguladora de las tasas por la prestación



tasak arautzen dituen Udala Zerga Ordenantzaren aldaketa.

2.- Jendaurrean jarri 30 egunez; horien barruan, interesdunek txostena aztertzeko eta egoki deritzeten alegazioak aurkezteko aukera izango dute. Argitalpena iragarki-taulan, udal webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean egingo da.

3.- Jendaurre-aldia bukatutakoan, dagozkion behin betiko akordioak egingo dira, aurkeztutako erreklamazioak ebatzita eta behin-behineko akordioak aipatutako aldaketen idazketa onartuta. Ez balego erreklamaziorik, akordioa, ordura arte behin-behinekoa, behin betikotzat joko da, osoko bilkuraren akordio beharrik gabe.

4.- Aurreko atalak aipaturiko behin betiko akordioak, automatikoki maila horretara eramandako behin-behinekoak barne, eta aldaketen testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira; argitaratu arte ez dira indarrean sartuko.

de los servicios públicos y realización de actividades económicas.

2.- Exponerla al público por plazo de 30 días, dentro de los cuáles los interesados podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas; la publicación se efectuará mediante el tablón de anuncios, página web municipal y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

3.- Finalizado el período de exposición pública, se adoptarán los acuerdos definitivos que procedan, resolviendo las reclamaciones que se hubieran presentado y aprobando la redacción de las modificaciones a que se refiera el acuerdo provisional. En el caso de que no se hubieran presentado reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario.

4.- Los acuerdos definitivos a que se refiere el apartado anterior, incluyendo los provisionales elevados automáticamente a tal categoría, y el texto íntegro de las modificaciones, serán publicados en el Boletín Oficial de Bizkaia sin que entren en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación.

4.- Angel Lekuonari buruzko mozioa

Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen Flossenbergo konzentrazio-esparruan Angel Lekuonaren heriotzaren 70. urteurrenari buruzko hurrengo adierazpena onartzea:

"Angel Lekuonaren oroimenez.

Flossenburg Txekiako mugatik gertu kokaturiko herri txikia da. Han, 1938an, naziek kontzentrazio-esparru bat eraiki zuten "gaizkile asozialak" atxikitzeko.

Honakoa da kontzentrazio-esparruaren definizioa:

"Kolektibo generiko bateko kide izateagatik eta ez norbere ekintzengatik atxikituriko pertsonentzako konfinamendugunea, epaiketarik eta berme judicialik gabe. Funtsean, errepresio politikoa gauzatzeko gunea".

Era berean, talde etnikoak, erlijiosoak, sexu-orientazio desberdinetako pertsonak, gerrako presoak eta abarrak atxikitze baliatzen zen.

Flossenburg 1.600 lagunentzat diseinatu zen; bukaeran, 15.000tik gora zeuden instalazio haietan. Pertsonak lanabes gisa erabiltzen ziren. Milaka eta milaka norbanako behartu zituzten erregimenarentzat lan egitera, granito-meategietan eta Messerschmitt hegazkinen lantegietan. Hori guztia osasun-baldintza tamalgarrietan, elikadura eskasarekin eta inolako zainketa medikorik gabe. Funtsean, eskulana ziren, eta gizakien bizitza lehengaitzat jotzen zen.

Ofizialki, 100.000 lagun sartu zituzten han; horietatik 30.000 hil egin ziren, baina preso asko erregistratu gabe zeudenez,

4.º.-Moción sobre Ángel Lekuona.-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar la siguiente declaración en relación con el 70º aniversario de la muerte de Ángel Lekuona en el campo de concentración alemán de Flossenberg:

"En memoria de Angel Lekuona.

Flossenburg es una pequeña localidad situada cerca de la frontera de Chequia. Aquí, en 1938, los nazis crearon un campo de concentración como centro de "criminales asociales".

La definición de campo de concentración es la de:

"Centro de confinamiento de personas que están retenidas por pertenecer a un colectivo genérico y no por sus actos individuales, sin juicio y sin garantías judiciales. Básicamente es un centro de represión política".

También se empleaba para encerrar a grupos étnicos, religiosos, personas de diferente orientación sexual, prisionero de guerra, etc.

Flossenburg se diseñó para que lo ocupasen 1.600 personas y acabó con más de 15.000 en sus instalaciones. Se usaba a las personas como útiles de trabajo. Decenas de miles de personas fueron obligadas a trabajar para el régimen en las minas de granito y en las fábricas de los aviones Messerschmitt. Todo esto en unas condiciones sanitarias deplorables, alimentación escasa y cuidados médicos nulos. Básicamente servían de mano de obra y la vida humana se consideraba



hildakoen kopurua, ziurrenik, handiagoa izango zen. 1945eko apirilaren 23an askatu zuten Flossenburgeko kontzentrazio-esparrua.

Angel Lekuona Beitia Apraiz baserrian jaio zen 1913ko martxoaren 1ean. Errepublikan legítimoaren altxamendu faxistaren osteko gerran, tropa frankisten aurkako borrokan zebilela, Pirinioetako Mendi Batailoian izena eman eta Kataluniaraino heldu zen. 1939ko otsailean, Frantziara alde egin zuen, beste milaka borrokalarik bezala, eta hurrengo helmuga Argeles sur Merreko iheslarien esparrua izan zen. 1939ko apirilaren 22an, Gurseko esparrura eraman zuten; urte hartako ekainean ateratu zen handik. 1943an Gestapok atxilotu arte egon zen Frantzian. Bordeleko forte batera eraman zuten eta, ondoren, Compiègne esparruan sartu zuten, Paristik gertu. Handik, 1944ko urtarrilean, Buchenwaldeko esparrura bidali zuten, Weimar hiri alemaniarretik hurbil. Ondoren, Flossenburgeko esparrura lekualdatu zuten, Txekiako mugatik gertu, eta Hradischko komandora bideratu, Pragatik (Txekiar Errepublika) hurbil. Angel Lekuona Flossenburgen erail zuten 1945eko apirilaren 10ean, esparrua askatu baino egun gutxi batzuk lehenago.

Flossenburgeko antzinako kontzentrazio-esparruan dagoen oroimenezko museoan, Angelen omenezko panel bat dago: beraren argazki batzuk zein biografia txikia daude ikusgai. Haren iloba, Anton Gandarias Lekuona, Flossenburgera joango da esparruaren askapenaren 70. urteurrenaren kariatara ospatuko den omenaldira.

Udal honetatik, omenaldi txiki hau egin nahi diogu bai gure herrikide izan zenari, bai hark ordezkatzeko duenari, haren ibilbide biografikoaz harago; izan ere, gure iritziz, Europako faxismoaren eta nazismoaren kontra milaka pertsonak jasan zutenaren adibide publikoa da Angel, eta pertsona horiek guztiek ez dute nahikoa aitortu jaso.

Horixe da gure eskualdean borrokatu ziren maki-taldeen kasua, hala nola erresistentzia frantsesean parte hartu eta Parisko askapenean desfilatzera iritsi ziren gudariera.

Mozio honen bidez, pertsona horiek guztiak oroitu eta beraien sakrifizioa aitortu nahi dugu, gure askatasunei ekarritakoagatik, gure herriak beste 40 urtez pairatu behar izan bazuen ere erregimen faxista, oraindik ere halakotzat jo gabea. Arrazoi horiek direla-eta, mozio hau aurkeztearekin batera udalbatza osoaren babesa eskatzen dugu”.

materia prima.

Oficialmente ingresaron en el campo 100.000 personas de las cuales 30.000 murieron, aunque había muchos presos sin estar registrados por lo que la cifra de muertos probablemente sería mayor. El 23 de abril de 1945 el campo de Flossenburg fue liberado.

Angel Lekuona Beitia nació en el caserío Apraiz el 1 de marzo de 1913. Durante la guerra que siguió al alzamiento fascista contra la legítima república, luchando contra las tropas franquistas, se alistó en el Batallón de Montaña Pirenaico y llegó hasta Cataluña. En febrero de 1939 pasó a Francia como otros miles de combatientes siendo su siguiente destino el campo de refugiados de Argeles sur Mer. El 22 de abril de 1939 fue trasladado al campo de Gurs de donde salió en junio de ese mismo año. Estuvo en Francia hasta que fue detenido por la Gestapo en 1943. Fue trasladado a un fuerte de Burdeos para posteriormente ser internado en el campo de Compiègne, cerca de París. De allí, en enero de 1944 fue enviado al campo de Buchenwald, cerca de la ciudad alemana de Weimar. Posteriormente fue trasladado al campo de Flossenburg cerca de la frontera con la república checa, siendo destinado al comando Hradischko, cerca de Praga (Rep. Checa). Angel Lekuona fue asesinado en Flossenburg el 10 de abril de 1945, pocos días antes de la liberación del campo.

En el museo memorial que existe en el antiguo campo de concentración de Flossenburg hay instalado un panel en homenaje a Angel en el que aparecen unas fotos de Angel así como una pequeña biografía. Su sobrino, Anton Gandarias Lekuona acudirá a Flossenburg al homenaje que se celebrará con motivo del 70 aniversario de la liberación del campo.

Desde este ayuntamiento queremos rendir este pequeño homenaje al que fuera nuestro vecino y lo que él representa, más allá de su recorrido biográfico, ya que en nuestra opinión, Ángel es un ejemplo público de lo que miles de personas sufrieron en Europa en la lucha contra el fascismo y el nazismo, sin que hayan tenido suficiente reconocimiento.

Este es el caso de grupos de makis que resistieron en nuestro eskualde, así como gudaris que participaron en la resistencia francesa y llegaron a desfilar en la liberación de París.

Esta moción pretende recordarles y reconocer su sacrificio por lo que ha supuesto para nuestras libertades, a pesar de que nuestro pueblo tuvo aun que sufrir 40 años de régimen fascista, todavía no reconocidos como tal.

Por estas razones presentamos esta moción y solicitamos el apoyo de toda la corporación.”



5.- Toki-eremuko enplegu plana.-

Osoko Bilkurak 2015eko Toki-eremuko Enplegu Planaren barruan aurkezturiko eskaerak baloratzeko eginiko proben emaitzen berri izan zuen, ondoko puntuazio ordena ezarri dutenak:

	Total/ Total	Ordena / Orden
Egoitz Agirre Sangroniz	40	4
Lorenzo Carmona Castellano	49	1
Francisco Granado Chacón	EZ GAI / NO APTO	
Joseba Iglesias Calzada	20	7
Jon Izagirre Lejarraga	47	2
Jon Lander Ojinaga Filibi	35	5
Iñaki Orosa Sánchez	45	3
Garikoitz Pérez Madariaga	30	6

Hori ikusita, Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen 2015eko apirilaren 7tik aurrera eta zortzi hilerako Lorenzo Carmona Castellano, Jon Izagirre Lejarraga eta Iñaki Orosa Sánchez langile gisa kontratatzea.

5.º.- Plan de empleo local 2015.-

El Ayuntamiento Pleno fue informado de los resultados de las pruebas realizadas para la valoración de las solicitudes presentadas dentro del Plan de Empleo Local de 2015 y que han dado el siguiente orden de puntuación:

A la vista de ello, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó contratar como peones para un periodo de ocho meses, a partir del 7 de abril de 2015, a Lorenzo Carmona Castellano, Jon Izagirre Lejarraga e Iñaki Orosa Sánchez.

6.- Alkatetza-dekretuak.-

Osoko Bilkurak ondoko Alkatetza-dekretuen berri izan zuen:
- 6/15, 5/2015 dekretuaren baliogabetzeari buruzkoa.

6.º.- Decretos de la Alcaldía.-

El Ayuntamiento Pleno fue informado de los siguientes decretos de la Alcaldía:
- 6/15 sobre revocación del decreto 5/2015.

7.- Galde-eskeak.-

Alkate andreak jakinarazi zien zinegotziei egun horretan egin beharreko Batzorde Informatzailea bertan behera geratu zela, Toledo Taldearen txosten teknikoak, Plan Nagusiaren behin-behineko onarpenaren ostean aurkezturiko alegazioei buruzkoa, beranduegi iritsi zelako eta, ondorioz, ez zelako astirik izan aztertzeko.

Iragarri zuen Batzorde Informatzailea apirilaren 8an egingo dela eta, aurretik, alegazioak eta txostena banatuko zaizkiela zinegotziei. Ondoren, osoko bilkura bat egingo da apirilaren 15ean, alegazioak ebazteko.

Eta besterik gabe, alkate andreak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, alkate andreak eta egiaztatzen dudak idazkariak sinatuta.

7.º.- Ruegos y preguntas.-

La Sra. Alcaldesa informó a los concejales que la Comisión Informativa que se preveía celebrar hoy no se llevaría a cabo, dado que el informe técnico de Toledo Taldea sobre las alegaciones presentadas tras la aprobación inicial del Plan General ha llegado demasiado tarde, por lo que no ha habido tiempo para estudiarlo.

Anunció que la Comisión Informativa se realizará el 8 de abril y que, previamente, se distribuirían entre los concejales las alegaciones y el informe. Posteriormente se celebrará un pleno el día 15 de abril para resolver las alegaciones.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. alcaldesa dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. alcaldesa y el secretario que certifico.



Busturiko
Udala



Akta

Alkatea/La Alcaldesa,

Idazkaria/El Secretario,

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

Víctor-Martín Amparan Álvarez